

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

2023-2025 aldiari antzerki eta dantza taldeentzako sorkuntza artistikorako Dante aretoak erabiltzeko baimena eskuratzeko deialdi publikoa

Deialdiaren oinarriak

1. Xedea

Vitoria-Gasteizko Udalak Dante lokalak erabiltzeko ematen dituen baimenak arautzea da deialdi honen helburua, hartara antzerki talde egonkorak —amateur nahiz erdi-profesionalak— osatu dituzten Vitoria-Gasteizko herritar erakundeek baliatu ahal ditzaten, arte sorkuntzarako. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, eta lengoia eszenikoei buruzko prestakuntza- eta ikerketa-testuinguru bat eskaini nahi zaie. Erabilera horretatik onura kultural eta soziala lortzen dute, inolaz ere ez onura ekonomikorik; horrenbestez, baimena doakoa da.

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzak 2.2 artikuluan xedatzen duenez, udal jabariko ondasunak doan besterendu edo horien gozamina eta aprobetxamendua uztean badautza laguntzak edo dirulaguntzak, ondarearen alorreko araudian xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Erabilera komun berezikotzat jotzen da lokal horien erabilera; horrenbestez, lizentzia edo baimena eskatzen da, eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onesten duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 77. artikuluan eta Administrazio Publikoaren Ondarearen 33/2003 Legearen 92. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.

2. Hartzaileak

Betebehar hauek bete beharko dituzte lokalak erabili nahi dituzten taldeek, eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik:

- Elkarrekin gisa legez erabiltzea.
- Gasteizen egon behar da elkarrekin helbide soziala.
- Lokalean ekoiziko den ikuskizuna dantzari edo antzerkiari lotuta egotea, eta gehienez urtebeteren buruan jendaurrean estreinatzeko asmoa izatea.

3. Betebeharrak

Dante lokalak erabiltzeko baimena lortzen duten erakundeek erabilera-arauak bete beharko dituzte (1. ERANSKINA), Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikuluko 7. paragrafoan ezarritako betebeharez gain.

Zehazki, baimena lortzen duten erakundeek betebehar hauek izango dituzte:

1. Ezingo diete lokalaren erabilpena beste erakunde edo pertsonaren bati laga.
2. Ezingo dute inolako obrarik egin lokalean.
3. Beren gain hartu beharko dute lokala okupatzeak dakarren erantzukizuna eta haien jarduerak hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteen aurrean erantzungo dute; horretarako, erantzukizun zibilarren aseguruaren kontratatuko dute. Aseguru hori elkarrekin batera kontratatu ahalgo dute aretoak erabiltzeko baimena esleitzen zaientzako entitateek, horretarako pertsonalitate juridiko propioa hartuta.

Ezaugarri hauek bete beharko ditu erantzukizun zibileko aseguru-polizak:

– Bermearen muga: 300.000,00 eurokoa kontratua banaka eginez gero, eta 450.000,00 euroko, kontratu kolektiboa bada.

– Hirugarrenei nahiz lokalari eragindako kalteak estali beharko ditu.

– Udalak aseguratu gehigarri gisa agertu beharko du polizan, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

4. Lokala dirulaguntzaren xede diren erabileretarako soilik erabiltzea.

Aldez aurretik antzokiko bulegoetan polizaren eta hura ordaindu izanaren egiaztagiriaren kopia aurkeztu ezean, ez zaie lokalaren giltzarik emango erakunde onuradunei.

4. Eskabideak eta agiriak

Dokumentazio hau aurkeztu beharko dute deialdi honetan parte hartu nahi duten elkarteek:

– Eskabide egokia aurkeztea (2. ERANSKINA).

– Antzetzte arteen alorreko ikuskizun proiektua (3. ERANSKINA).

– Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkatzeko-ahalmena egiaztatzen duen agiria eta elkar-tearen lege-ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun-agiriaren fotokopia.

– Elkarte legez eratuta eta Elkarte Erregistro Nagusian eta Vitoria-Gasteizko udaleko herritar erakunde udal erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duten agiriak.

– Aurkeztutako eskabideen gaineko ebazpena albait egokiena izan dadin, beste agiririk ere eskatu ahal izango dut Antzoki Sareak.

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Adminis-trazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Eskaerarekin batera behar ziren agiri guztiak aurkeztu ez badira, edo agiri osagarriren bat behar bada, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari okerrak zuzentzeko. Hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2023ko irailaren 11n amaituko da (egun hori barne).

5. Lokalak erabiltzen uzteko baimena emateko irizpideak

Gehienez ere berrogeita hamar puntu emango dira, eta 25 lortu beharko dira erabilpen-bai-mena emateko aukera kontuan hartzeko:

IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
1. Proiektuaren interes artistikoa	
1.1 Originaltasuna	1.1: 2 puntu
1.2 Proposamenaren berritasuna (gaia, hurbilpen dramaturgikoa...)	1.2: 2 puntu
1.3 Gasteizko ondare eszenikoa berreskuratzea (espazioak, testuak, egileak edo gure hiriko arte eszenikoeekin lotutako beste alderdi batzuk)	1.3: 2 puntu
1.4 Oinarritzat hartutako testua edo jatorrizko testua	1.4: 2 puntu
1.5 Antzetzte hizkuntzari egiten dion ekarpena	1.5: 2 puntu
2. Proiektuaren metodologia eta garapena	10 puntu
3. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa	
3.1 Proiektua abian jartzeko bideragarritasun erreala, alderdi teknikoari nahiz ekonomikoari dagokienez	5 puntu
3.2 Entitate pribatuetatik lortutako beste diru-sarrera batzuk	5 puntu
4. Taldearen ibilbidea	5 puntu
5. Ohikoak ez diren publikoentzako lanak izatea (gazteentzat, kolektibo gutxituentzat eta abar)	3 puntu
6. Erabiliko diren aretoen proposamena. (ingurune inklusiboa den, ohiz kanpoko esparrua diren...)	3 puntu
7. Programaren garapenean euskara erabiltzea Euskararen erabilera baloratzea (lan-hizkuntza den, materialak, komunikazio-hizkuntza den...)	3 puntu
8. Genero-ikuspegia txertatzea	
8.1 Proiektuan genero-ikuspegia nola txertatu den azaltzea	3 puntu
9. Proiektuaren barruan tolerantzia eta kultur aniztasunaren ezagutza sustatzen duten ekintzak gauzatuko diren	3 puntu

6. Ebazpena eta jakinarazpena

Gehienez hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza esku-ratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

Pertsona hauek osatutako balioespen-batzorde batek aztertuko ditu eskabideak:

- Vitoria-Gasteizko Udalaren Antzoki Sarearen arduradunak.
- Zerbitzu bereko ikuskizunen kudeaketako teknikari batek.
- Antzerki-zuzendari bat, tokikoa eta arloan aditua.

Eskabideak oinarri hauetako irizpideen arabera balioetsi ondoren, balorazio teknikoko batzordeak balorazio-txosten tekniko bat egingo du, eta deialdi honen ebazpen-proposamena Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariari helaraziko zaio. Zinegotzi horrek berriaz eskuordetuko du ahalmen hori oinarri hauen bidez, ondoren ebazteko.

ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira dirulaguntzak eman nahiz ukatzeko ebazpenak, baita horiek izan litzaketen aldakuntzak eta prozedurako gainerako egintzak ere. ALHAOko argitalpen horrek Administrazio Publikoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz egindako jakinarazpenaren ondorio guztiak izango ditu, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legean xedatutakoa aintzat hartuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala egingez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Horren ondoren berriazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

7. Lokala erabiltzeko baimena formalizatzea

Erabilpen-baimena onesten duen zinegotzi-ordezkariaren ebazpenean adieraziko dira baimena emateak berekin dakartzan baldintzak.

8. Lokala erabiltzeko baimenaren iraupena

Baimenak urtebete iraungo du; hala ere, baimena baliogabetzea izango da, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4º artikuluan araututakoari jarraituz. (1. ERANSKINA).

Vitoria-Gasteizen, 2023ko ekainaren 28an

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

1. eranskina

Antzerki eta dantza taldeentzako sorkuntza artistikorako "Dante" lokalak

Erabiltzeko araudia

1.- Xedea

- Araudi honek Gasteizko antzerki talde egonkorrek —amateur nahiz erdi-profesionalak— Dante lokalak erabiltzeko oinarriak zedarrizten ditu.

- Dante entsegu-aretoak San Ignacio ikastetxea izandakoaren lehen solairuan daude, sarrera Gasteizko Errota kaletik dutelarik.

- Erabiltzaileei esleitzen zaizkien lau gune independenteez gain, espazio komunak daude bertan: sarrera eta eskailerak, korridorreak, komuna.

2.- Dante lokalen xedea

- Gasteizko talde egonkorrei lokalak uztea, dantza eta antzerkiko ikuskizun berriak sortu ahal ditzaten.

- Artearen esparru horietan sormena eta prestakuntza sustatzea.

3.- Erabilpen-arauak

Sarbidia

Lokalak erabili ahal izateko antzerki edo dantza ikuskizun bat –edo proposamen eszeniko berriren bat– sortu edo ekointzatu proiektu bat aurkeztu behar da nahitaez, jendaurrean estreinatzeko asmoz. Talde bakoitzak bere gain hartzen du ikuskizuna jendaurrean emateko konpromisoa, gehienez ere urtebeteko epean. Konpromiso horren ezean, ezinezkoa izango da lokalak erabiltzeko baimena eskuratzea.

Lokalen egituraketa

- Lokala osotasun gisa ulertzen da, eta haren baitako guneak talde eskatzaileei esleitzen zaizkie.

- Areto kopurua: 4.

- Areto bakoitzeko talde kopurua: 3

- Ordutegiaren banaketa: Astelehena - asteazkena - ostirala / Asteartea-osteguna-larunbata.

- Talde-kopurua, gehienez: 12

- Edonola ere, ordutegia malgua izan daiteke, taldeen beharren arabera, betiere taldeek erabilera adosten badute.

- Lokala erabiliko dituzten taldeen artean koordinatzaile bat izendatuko da, Udalaren antzoki Sarearekin koordinatzeko, eta, aldi-aldi, gerta litezkeen gorabeheren berri emateko.

- Erabiltzaileek ezin izango dute, inolaz ere, instalazioan aldaketarik egin, eta betiere men egingo diete Udalaren Antzoki sareko langileen jarribide eta esanei.

Denbora

Dante entsegu-lokalak bi urterako utziko dira. Edonola ere, egoki baderitza, taldeetako edozein epea bete aurretik lokaletik egozteko erabakia hartu ahal izango du Udalak, arau hauetan ezarritakoaren ildotik.

Taldeen konpromisoa

Instalazioaren erabiltzaileek konpromiso hauek hartzen dituzte beren gain:

- Taldeak zein proiektu aurkeztu duen, eta lokala horrekin zerikusirik ez duen beste ezertarako ez erabiltzea.

- Instalazioa garbitzea. "Garbiketa eta mantentze arauak" ezartzen dira horretarako.

- Talde bakoitzak erabiltzen duen aretoaren eta kanpo-sarrerako ateetako giltzak izango ditu. Giltza horiek baimen-aldia amaitzean itzuliko dira, eta ezin izango da inoiz horien kopiarik egin, ez bada Udalaren Antzoki Sarearen baimenarekin. Kanpoko ateak itxita izan beharko dute uneoro.

- Lokaletara ezin izango da taldeetako kide ez den inor sartu ahal izango.

- Baliteke proiektuak udal sarearen antzokietan ematea; horretarako, Antzoki Atalak alde aurretik balioetsiko ditu ikuskizunak.

- Taldeak lanari buruz egiten duen publizitate entzunezko edo ahozko orotan Udalaren Antzoki Sarearen lankidetzaren berri eman beharko da, logotipoarekin batera.

Erabiltzaileak lokala erabiltzeari uzteko zergatiak

- Konprometitutako baimen-aldia amaitzean.

- Beren jarrerak kalte egiten dionean jardueraren ohiko garapenari.

- Erabilera-baimeneko helburuez bestelakoetarako erabiltzen denean lokala.

- Ezinbesteko arrazoiren batengatik hasierako konpromisoa hautsi beharrean gertatzen badira.

- Kasu guztietan, taldeak esleitura zuen aretoa utzi egin beharko du, sartu zenean zegoen egoera berean utzi ere. Horiek horrela, ez da batere eragozpenik erabilpen-baimena amaitu berri duen taldeak beste baimen bat eskatzeko jarraian.

Programaren jarraipena eta lokala mantentzea

- Udalaren Antzoki Sareko langileak erabateko askatasunez sartu ahal izango dira instalazioetan, erabilera egokia dela eta instalazioak egoera onean daudela egiaztatzeko.

- Taldeen koordinatzaile izendatutako pertsonak bere gain hartzen du hilean behin burututako jardueraren eta izandako gorabeheren berri ematea Udalaren Antzoki Sareko teknikari arduradunari.

- Udalaren Antzoki Sarearen kontura joango dira denboraren joanaren eta instalazioen ohiko erabileraren ondoriozko mantentze lanei dagozkien gastuak, eta erabiltzaileen kontura –erantzule diren neurrian– utzikeriari edo erabilera makurrak eragindakoena.

Jarduera bertan behera uztea

Ezarritako arauak ez betetzeak edo horiek modu arbitrarioan interpretatzeak arau-hauslearen jarduera bertan behera uztea ekarriko du automatikoki, bai eta lokaletatik joan beharra ere.

2. eranskina. Eskabidea

Dante entsegu-lokalak erabiltzeko eskabidea

- Izen-abizenak:

- NAN:

- Taldea / Elkartea:

- IFK:

- Jakinarazpenetarako helbidea:

- Harremanetarako telefonoa:

- Faxa:

- Posta elektronikoa:

Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Nagusian izena eman zuen eguna:

- Goian adierazitako taldeak, eta haren izenean goiko laukian adierazitako datuen jabea den pertsonak, 2023-2025 aldian Dante entsegu-lokaletako bat erabiltzeko baimena eskatzen du, betiere indarreko legediarekin bat etorrira, eta horretarako proiektu hau aurkezten du:

Data:

Sinadura

Eskabidea sinatu aurretik, datu babesari buruzko informazioa ikusi hemen: hurrengo orrialdean

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Vitoria-Gasteizko Udala (IFK- C/F: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	Dante lokakak kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean.
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.

3. eranskina

Proiektuetan informazio hau adierazi behar da:

- Proiektuaren helburuak:
- Proiektuaren deskribapena: gidoia, talde artistikoa eta teknikoa.
- Ekoizpen-plana, komunikazio-plana eta erakusketa-kronograma barne.
- Nori zuzenduta dagoen:
- Aurreikusitako parte-hartzaile kopurua:
- Giza baliabideak eta erabiliko diren materialak.
- Egin ondoren proiektua ebaluatzeko moduak - adierazleak.
- Eskabidea egiten duen erakundeari buruzko informazioa